

IDATZ & MINTZ

Literatur atalen sorta

56

Aurkibidea: Patxi Zubizarreta: GEREZI DENBORA. **3**. Jabier Kalzakorta: *NESKA ONTZIRATUA* BALADAREN EREDU BERRIA, AIHERRAKO ALDAERA. **7**. Yolanda Arrieta: HABIAK ETA HEGOAK. **16**. Juan Ramon Madariaga: POEMAK. **22**. Xabier Boveda: CHARLES BAUDELAIRE, LIRIKA MODERNOAREN AITA. **25**. Eneko Urizar: BETIRAKO. **30**.

ARGITARATZAILEA
Labayru Ikastegia
Literatura saila

IDAZKARITZA BATZORDEA

Adolfo Arejita
Asier Astigarraga
Jesus A. Etxezarraga
Jabier Kalzakorta
Miren Agur Meabe
Lourdes Unzueta
Andres Urrutia

ARDURADUNA
Igone Etxebarria



Argitalpen hau Bilbon irarri da 2014ko uztailean, Gestingraf, S.A.L. etxean, eta lkur Fotokonposaketak taiutu dau Times letra moldez. Azaleko irudia Luis Manuel Peña Ferro, gainerakoak «Erté graphics», «Big book of silhouettes» eta «3.800 early advertising cuts» liburuetatik atera izan dira.



LABAYRU IKASTEGIA
Aretxabaleta, 1-1ngoa
Tel.: 94 443 76 84 - Fax: 94 443 77 58
Posta elektronikoa:
labayru@labayru.org
48010 BILBAO

bbk²

Gerezi denbora

Ezinbestekoa zait gora begiratzea, atzera, aurrea, edo behera begiratzea bezainbeste, batez ere gehientsuenok behera begira gabiltzan honetan: gehientsuenok ere zorigaiztoko, burumakur eta mingulin.

Behera begiratu beharraren arrazoi bila, krisiaren gorabeherez gain, aurreko batean asteniari buruzko argibideak irakurri nizkion Idurre Eskisabeli *Berriako* orrialdeetan. Astenia, hau da, udaberriko nahiz udagoieneko nekadura eta gogo gabetia. Normala dela irakurri nion, berezkoa dugula, gorputzeko betaendorfinak murrizten zaizkigulako, antza. Kazetariaren aholku sorta ere irakurri nuen: atsedena hartzeko, kirola egiteko, erregina-jelea hartzeko, eta datilak, platanoak, magnesioa, eltze-koa...

Alabaina, gora begiratu beharra ere nabarmenduko nuke nik, hartara, gora begiraturik erreparatu egingo diegulako, noiz hosto gorritzei, noiz enara jostarinei, noiz gereziondoei. Eta, gereziak aipaturik, ezinbestean antzinako bizilagun bat datorkit gogora; gerezi arbolara igota, hark egiten zituen gerezi jan mundialak. Eta tripakada gozoaren ondotik beherakoa etortzen baldin bazitzaion, zuhaitz txanogorritsutik jaitsi ere egin gabe, frakak askatu, egin beharrekoa egin, eta mokoka jarraituko zuen, zozo gozozaleak nola. Eta gorputzaldi ederrarekin

jaisten baldin bazen, gereziondoean hartuko zuen geriza, hantxe egingo zuen lo susta.

Beste adiskide bat ere etorri zait memorian atejoka. Gasteizen, ibilian gindoazela, ustekabean, fruta denda batean gereziak erosi, ni parke bateraino eramanean, eta berdamenean gorri egin genuen, berriketan biluzgorri. Oso oker ez banago, berak eman zidan Jean Etchepereren —sendagile ez, eta bestearen— *Mendekoste gereziak* ipuin liburuaren berri.

Jerte izan edo Gredos, Milagros izan edo Etxauri, sasoiaren denean, gerezitara batez ere aste barreretan joatea gomendatuko nuke nik, isilka, zozoaren kantuararen bizipozaz hobeki jabetzeko, edo Maddi Oihenarten *Gereziondoak loretan* kantua ahopeka xaramelatzeko, japoniarrak *Hanamia* ospatzen dutenean bezalaxe. Haien ustetan gizakia gereziondoaren lorea bezalakoa da: urria, ederra eta iragan-korra.



Alabaina, loretan den zuhaitzaren ikusmenaren ondotik, fruitu mardul askoa, fruitu gorri askoa etorriko da; karminalako gerezia edo anpolaiia geroago etorriko da, eta orduan Manuel Rivasen testu gorri eta gogoangarri honekin ere oroit gintezke, ezin hobea iruditzen baitzait asteniari, edo ahuleziari, edo krisiari edo dena delakoari aurre egiteko.

Udako lehen gereziarekin egiten dut amets. Emakumeari eskaini diot eta berak ahora eraman du. Begi beroekin begiratzen dit, bekatu begiekin, eta bitartean bere egin du gereziaren haragia. Ustekabean, musu eman dit, eta musuarekin batera, gerezia. Eta ni txora-txora eginda joan naiz, egun oso-osoaan gereziaren hezurarekin hortzen teklatuan musika eginez.

Gauean esan diot: “Badut zuretzat zerbait, maite”.

Eta haren ahoan lehen gereziaren hezurra utzi dut.

Daniel Pennac idazlea ere, *Gorputz baten egunerokoa* liburuan, mintzatu zen karminaz, gorriaz, amodioaren iraupenez.

Gaztea udalekutik joatekotan da, edo udako oporraldia amaiturik, eta harropuzten duen gerra zauri baten gisara, ongi ezkutuan darama karmिनaren gorria gorputzean tatuatua, denen ezkutuan. Inondik ere ez du ezabatzea nahi, inondik inora han-hemenka gordea atxiki nahi luke, pasioaren oroigarri; baina bere senak diotso, karmina desagertzearekin batera, oroitzeari utzi, oroitzapenen poderioz iraunbizitzeari utzi, eta berriro hasi beharko duela bizitzen, berriro bizitzen hasi.

Eta, gurean, Jon Suarezek gerezi bat bezain zaporetsua den haurrentzako poema idatzi zigun —«Musuetan musu»— *Ilbetea dilindan* liburuan.



*Amatxoren karmina gustatzen zait
aitaxoren masailean marrazten.
Aitaxoren egunbeteko bizarra gustatzen zait
amatxoren musua mokokatzen.*

*Oso ditut maite
karmina eta bizarra
bizarra eta karmina
matela banatan pausatzen
zaizkidanean
matrailatxook gorrimitzen
dizkidatenean.*

Alabaina, II. Mundu Gerratik datorkigu beharbada karminarekin zerikusia duen pasadizo gogoangarrietako bat. Mervin Willett Gonin teniente koronelak Bergen-Belseneko kontzentrazio zelaia 1945ean askatzen lagundu zuen, eta bere eguneroan ezin hobeki, ezin hunkigarriago jaso zuen zer izan zen bertako emakume presoentzat ezpainlapitz bat eskuratzea:


Gurutze Gorri Britaniarra heldu, eta handik gutxira, ez jakin nondik nora, hara non ezpainlapitz pila iritsi zen. Ez genuen halakorik nahi, bes-telako gauza mordoa eskatzen ari ginen, baina, ez jakin nondik nora, bakarren batek ezpainetako

barrak eskatu zituen. Eta nik jakin egin nahi, zeren ekintza hura jeinu batena izan baitzen, bikain baino bikainagoa. Ziur nago atxilotuei ezerk ezin zuela hobeki lagundu. Emakumeak izara gabeko oheetan etzanak ageri ziren, kamisoirik gabe, baina ezpainak bizi-bizi gorritzatuak; edo hara-honaka ikusten genituen, noraezean, agian tapaki bat sorbaldan, baina ezpain gorriminekin. Mahai post mortem batean, emakume bat hilik zetzan, baina artean ezpainlapitz zatiño bati eusten zion. Azken batean, ez jakin nondik nora, bakarren batek berriro itzulia zien pertsonen duintasuna, nor izatera

iritsiak ziren, atzera, eta ez besoan tatuatua zera-maten zenbaki hutsa. Akaberan, berriro hasiak ziren itxuraz arduratzen. Ezpainlapitz haiek gizatasuna itzultzen lagundu zieten.

Bai, ezinbestekoa zait gora begiratzea, atzera, aurrera, edo behera begiratzea bezainbeste, batez ere gehientsuenok behera begira gabiltzan honetan: gehientsuenok ere zorigaiztoko, burumakur eta mingulin; batez ere gereziak kasik urte guztian — Argentinakoak edo hemengoak — eskura dauzka-gun honetan.





Neska ontziratua baladaren eredu berria: Aiherrako aldaera

0. Sarrera

Neska ontziratua bezala ezagutzen dugun euskal balada dramatismo eta indar poetiko handikoa dugu. Balada honen zenbait eredu argitara ditugu orain baino lehen. Gure lan honetan Baxenabarreko eredu argitaragabe baten berri eman nahi dugu. Eredu horri Aiherrako ereduak deitu diogu, herri hartako Andre Martinonen kaier batean bildua delako. Kaier hau ez dakigu noizkoa den. Data gutxigora-beherako bat jartzearen, gutxienez hiru hogeitau urte dituela ziurtatu dezakegu.

Donibane Garaziko eredu osoago bat eman dugu argitara *Litterae Vasconicae* 14 alean. Garaziko eredu honek hasiera-bukaerak eta baladaren gertaera funtsezko guztiak zituen. Gure lan honetan argitaratu emango dugun Aiherrako ereduak, aski osoa bada ere, falta ditu bukaerako ahapaldiak. Bukaerako ahapaldietan neska hil ondoren itsasora jaurtzen dute. Bukaerako ahapaldirik ez badu ere, gure eredu berri hau guztiz interesgarria dela iduritzen zaigu. Eredu bakoitzak bere ezaugarriak ditu eta eredu aski osoa bada –Aiherrako ereduak hamahiru ahapaldi ditu–, zehaztasun berriak eskaini ohi ditu. Ez dago esan beharrik eredu berri bakoitzak hizkuntza ezaugarri interesgarriak –euskalki-ezaugarri balioetsuak, gure kasuan Baxenabarreko mugakoak– zein baliabide estilistiko berriak eskaini ohi dituela.

Geure lan honetan, orain arteko bideari jarraituz, eskuidatziko transkripzio zuzena eta gaurkotua emango ditugu. Gure transkripzioan izan ditugun arazoak ez ezik, gure aldaeraren zenbait ezaugarrien berri ere emango ditugu.

1. Neska ontziratua baladaren argudio eta pertsonaiak

Neskatila gazte batek bere jauregian, brodatzen ari delarik, marinel baten kantu ederra entzuten du. Euskarazko aldaeretan ez da jauregirik inoiz aipatzen. Neskatilak bere bizilekuari erreferentzia egiten dionean, *etxe* hitz soila aipatu ohi du. Neskatila, gehienetan, sala edo galeria batean ari da brodatzen. *Sala* edo *galeria* jauregi edo handietxe bati dagozkion lekuak izan ohi dira. Kantu eder horrek xoraturik amagana doa eta amak alabari diotso kapitainagana joan eta gonbida dezala etxean afaltzera. Neskatila bere jauregitik itsas bazterrera joan eta untzian dagoen kapitaina afaritera gonbidatzen du. Aiherrako gure ereduaren neskatila sala batean ari da brodatzen, baina kantua entzuteko goiko ganbera batera joateko baimena eskatzen dio amari. Alaba kapitainagana doanean, kapitainak itsasoratu behar duela diotso, haizea alde duelako. Gure Aiherrako aldaeran “haizea” alde izan beharrean “ura”

duela alde dio kapitainak. Ura alde izatea ez dugu beste gainerako euskal eredu bakar batean ere aurkitu. Behin untzian sartu ondoren, kapitainak lobe-larra ematen dio eta neskatxa lokartzen da. Kapitainaren engainuzko bahitzea marinel on batek salatu ohi du, gehienetan. Itsasoan barrena legoa asko nabigatu ondoren, neskatilak iratzarri eta etxera itzultzeko erregutzen dio kapitainari. Baxenabarreko aldaeretan *aita-amen etxerat itzultzea* esan beharrean *aita-amen porturat turnatzea* erregutzen du neskatilak. Itsasoan barrena legoa asko egin dituztela eta ezin dela turnatu erantzuten dio kapitainak. Neskatilak bere burua galdurik ikusten duenean, ganibeta eskatzen du soineko estua askatzeke. Kapitainak ganibetarik ez du eta bere ezpata ematen dio. Gure Aiherrako ereduan, ganibeta eman beharrean, puñala ematen dio. Neskatilak puñalarekin bere jantziak askatu beharrean bihotzean sartu eta lurrera erortzen da.

Neskatila hil ondoren denen artean musu bana eman eta itsasora jaurtzen dute hilotza. Kapitainak neskatila aita-amen portura itzultzen ez badu ere, itsasoko uhinek itzuliko dute hilotza gurasoen portura. Aiherrako ereduan ez dator azken bukaera hau.

Neska ontziratua baladako eredueta bi estilo trukatu ohi dira, elkarrizketa eta narrazioa hirugarren pertsonan. Hirugarren pertsonan ari den narrazioa adierazteko “poeta” hitza erabiliko dugu. Hitz hau Humboldt-ek *Andre Emili* baladaren transkripzio sarreran erabili zuen: *Richter* alemanez. Euskarazko *Neska ontziratua* balada eredueta elkarrizketa eta poeta horiez gain, lehen pertsonan ari den neskatila protagonistaren narrazioa ere agertu ohi da (lehen, bigarren eta are hirugarren ahapaldietan), eta are lehen pertsonan ari den poeta batena (Garaziko ereduko 15. ahapaldia, kasurako),

Gure Aiherrako ereduan lehen pertsonan ari den neskatila protagonistaren ahapaldiak ditugu (lehen

hirurak), hirugarren pertsonako narrazioa (zazpigarrena) eta gainerako guztia elkarrizketa.

2. Jatorrizko eskuidatziaren transkripzioa

Puntu honetan Aiherrako eskuidatzia dagoen dagoenean transkribatuko dugu. Gure helburu nagusia iturria fidelki transkribatzea da. Ahapaldi bakoitzaren lerroen eraketa, ortografia eta are puntuazioa ere fidelki transkribatuko ditugu. Kaier askotan bezala, ahapaldiak zenbakiturik daude. Zenbakiaren ondoan ordena jarri ohi da. Lehen ahapaldian *1er couplet*, eta gainerakoetan *2eme, 3eme* eta abar. Guk zenbakiak bakarrik jarriko ditugu ahapaldi bakoitzaren gainean.

1

Behin ari ninzelarik sala batian brodazen
Sala bathian brodazen eta bersu ederren enzuten.

2

Broderia phausaturik
Jauninzen amaren ganat (bis)
Heian uziren ninduenes gaineko ganberalat
Bersu ederren enzuterat

3

Bai ene alaba, bai habil
Gaineko gamberalat eterrokon, jin da di ela
Gurekin afaiterat, gurekin afaiterat eta
Hiri kobla erakusterat.

4

Capitaina, capitaina, zato gure etcherat berehala
Gurekin afariterat eta
Niri kobla erakusterat (bis)

5

Andere churi charmanta
Ene jítia impossible da
Ura dugu alde eta
Unsia phartitu beharra (bis)

6

Andere churi charmanta
Sarzite untzi huntara /bis
Emanen dauzut kopia eta
Erakusiren airia.

7

Andere churi charmanta
Sarzen da untzi hartarat (bis)
Emaiten dako lo beharra
Lokharthu zen berehala.

8

Capitaina capitaina
Nun duzu konsiensia?
Andere churi charmanta
Horren hola tratazia nun duzu konsienzia?

9

Mariñela mariñela
Emak unsirat bela
Aspaldian desira nuena
Orain jin zatak bera, emak untzirat bela.

10

Capitaina capitaina
Norat jina nais ni hunat
Turna nesassu hartu lekhura
Ene aita amen phortura (bis)

11

Andere churi charmanta
Nun uste duzu zirela
Badu sei ehun oren lekhura
Bidian girela, impossible turnasia

12

Capitaina, capitaina
Badusuiea ganibetik
Ez es dut ganibetik bainan
Pugnala chorroch berria

13

Andere churi charmantak
Harsen du pugnela eskura
Tirazen dako lephora eta
Erori zen hil gogorra.

Puntu honetara aldatu dugu transkripzioa jatorrizko kaierean lau plamatan dator. Lehenean lehen biak, bigarrean hurrengo bostak, hirugarrean hurrengo bostak eta laugarrean azkena.

3. Aiherrako ereduaren ahapaldiz ahapaldikako iruzkina

Puntu honetan ahapaldiz ahapaldi iruzkinduko dugu geure balada. Saiatuko gara azaltzen, era berean, lehen transkripzioa nola osabete eta ulertu behar dugun. Gure eredu hau, azkenik, beste eredu batzuekin ere erkatuko dugu.

1

Behin ari ninzelarik sala batian brodatzen,
sala bathian brodatzen eta bersu ederren entzuten.
[Marignel bat entzun nuen itsasoan kantatzen]

Lehen ahapaldi honek, itxurak direnez, zerbait falta du. Gainerako eredu gehienetan *Marignel bat*

entzun nuen itsasoan kantatzen esaldia edo antzekoa den *aire eder bat entzun nuen itsasotik kantatzen* agertu ohi da.

2

Broderia phausaturik jaunintzen amarenganat, Heian utziren ninduenez gaineko ganberalat [gaineko ganberalat eta] bersu ederren enzuterat.

Bigarren ahapaldi hau ere apurren bat aldatua dagoela dirudi. Donibaneko aldaeran *Heian utziren ninduenez itsaso bazterrerat* dio. Brodatzen ari den neskatalak itsasoko aldetik entzuten badu kantua, itsasora joateko baimena eskatzen dio amari. Gure kasuan geroagoko aldaketa baten bidez, itxurak direnez, kanta itsasoko bazterretik etorri beharrean, *gaineko ganberalat* dator. Guk geure bigarren ahapaldia osoago izan dedin bihurki bidez errepika egin ondoren eta jarri diogu: [gaineko ganberalat eta].

3

Bai ene alaba, bai abil gaineko ganberalat Et[a] errokon jin dadiela gurekin afaiterat, gurekin afaiterat eta hiri kobla erakusterat.

Transkripzioari gagozkiola, hiru hitzetan transkribatu du *dadiela* adizkia. Ahapaldi hau, bestalde, oso-osorik dator. Hirugarren ahapaldi hau bat dator Donibane Garaziko laugarrenarekin. Garaziko ereduana ama-alaben arteko elkarrizketa estilo zuzenean eta zeharrean dator. Gure ereduana estilo zuzeneko bakarrik dugu. Ohargarria da amak alabari beti hika egiten diola. Garaziko ereduana *erran zacon* dator, gurean, aditz perifrastikoa aurkitu beharrean trinkoa aurkitzen dugu: *errokon*. Ohargarria da, bestalde, *Neska ontziratua* baladan aginterak duen presentzia harrigarria. Ezagutzen ditugun eredu guztietan presentzia handia badu ere, Aiherrako

gure ereduana are handiagoa duela dirudi. Hona adibide hauek diogunaren erakusgarri. Amak alabari agintera bidez hitz egiten dio: *habil, errokon*; andereak kapitainari: *zato gure etcherat berehala*; kapitainak andereari: *sar zite*; kapitainak marinela onari: *emak untziari bela*; andereak kapitainari: *turna nezazu hartu lekhura*.

4

Capitaina, capitaina, zato gure etcherat berehala Gurekin afariterat eta niri kobla erakhusterat, Gurekin afariterat eta niri kobla erakhusterat.

Kapitaina, kapitaina bi aldiz deikia Iparraldeko eredu batean baino gehiagotan aurkitzen dugu. Xahoren B ereduana, Altxaiko ereduana, Gotainekoa, Donibanekoa. Eredu guztietan, gainera, *afariterat/afaiterat* aurkitzen dugu. Eredu gehienetan *kobla* eta *pertsu* hitzak erabili ohi dira.

5

Andere churi charmanta, ene jitia impossible da Ura dugu alde eta unsia partitu beharra Ura dugu alde eta unsia partitu beharra.

Kapitainak Iparraldeko ia eredu guztietan –guk argitaratutako eredu osoez ari gara: Xahoren biak, Altxaiko, Gotainekoa, Garazikoa– esaldi bera erabili ohi du ezina adierazteko. Esaldi honetan bateratasun handia dago bestaldeko eredu guztietan, Donibaneko ereduana 6. ahapaldian *Inposible da anderia orai ni harat jitia*. Gotaineko ereduana *Inposible da, anderia, gaur zure etxerat jitia*. Altxaiko ereduana *Anderia, imposible da gaur ene hara jitia*. Xahoren B ereduana *Anderia, imposible da ene hara jitia*.

Ahapaldi honetan *ura dugu alde* dio. Iparraldeko gure eredu osoetan *airia da alde* edo *favorable* aurkitu ohi dugu. Xahoren B ereduana: *airia fabora-*

ble dit (5. ahap.); Altzaiko ereduan: *adia favorable beitiü[t]* (5. ahap.); Gotaineko ereduan: *aria favorable dügü* (5. ahap.). Garaziko ereduan ez dugu esaldi hau aurkitzen. Interesgarria da nabarmentzea guk aipatu ditugun eredu guztiean *favorable* hitza agertzen dela. Aiherrako ereduan, ordea, *ura dugu alde* dio, *airia favorable* hitzen lekuan.

6

Andere churi charmanta sar zite untzi huntara
Andere churi charmanta sar zite untzi huntara
Emanen dauzut kopia eta erakusiren airia.

Beste eruedetan agertzen ez den *churi* izenlaguna aurkitzen dugu ahapaldi honetan. Izenlagun horrek zer berritasun ematen du? Ezagutzen dugun Iparraldeko lehen eredu osoan (GH aldizkariko 1928 urtekoan) *andere gazte xarmanta* dugu neskatilaren deikia. *Gazte* izenlaguna egokia eta esangurara handikoa dugu. Baliteke gure baladan *andere-auren xarmanta* deikia *andere xuri xarmanta* bihurtzea ez hurbiltasun fonetiko, silaba kopuruak aginduta baino.

Gure eredu honetan bakarrik aurkitzen dugu *emanen dauzut kopia*. Kapitainak andereari kopa bat emateko gonbita egitea bitxi bezain polita da.

7

Andere churi charmanta sarzen da untzi hartarat
Andere churi charmanta sarzen da untzi hartarat
Emaiten dako lo belharra lokharthu zen berehala.

Ahapaldi hau narratzailearena dugu. Hirugarren pertsonan ari den poetarena (*Richter* Humboldt-en terminologiaren arabera). Ahapaldi hau berau agertu ohi da gainerako eruedetan. Xahoren A eta B eruedetan zazpigarren ahapaldia, Altzaiko ereduan hamargarrena, Gotaineko ereduan zazpigarrena eta Garaziko ereduan ere zazpigarrena.

Transkripzioari gagozkiola, *untzi* irakurtzen badugu ere, bi aldiz datorren *sarzen* ere “sartzen” irakurri beharko dugu. *Lokharthu* aditza, bestalde, bigarren transkripzioan aspirazio bakarrarekin transkribatuko genuke: *lokhartu*.

8

Capitaina, capitaina, nun duzu konsiensia?
Andere churi charmanta horren hola tratazia
[Capitaina, capitaina,] nun duzu konsienzia?

Trankripzioan duda izan dugu *horren/harren* aukeren artean. Bi aukeretatik askoz argiago ikusten dugu *horren* izatea. Zentzuari gagozkiola ere, *horren hola* hobeto dator *horren hala* baino.

Zortzigarren ahapaldia marinela onaren esana dugu. Gainerako eruedetan ere aurkitu ohi dugu. Xahoren B ereduan bederatzigarrena, Altzaikoan hamabigarrena, Garaziko ereduan zortzigarrena.

Marinela ona kapitainari –bera baino gradu edo maila goragokoari– beti zuka zuzenduko zaio. Kapitaina, oster, marinela hika egingo dio.

Ahapaldi hau osatzeko [kapitaina, kapitaina] deiki bikoitza gaineratu dugu.

9

Mariñela, mariñela, emak unsirat bela
Aspaldian desira nuena orain jin zatak bera
[Orain jin zatak bera eta] emak untzirat bela,

Ahapaldi hau kapitainaren agindua da marinela onari. Agindu hau aldaera oso guztietan aurkitzen dugu. Garaziko ereduan *emok untziari* (datiboan) *bela* dator. Gure ereduan *emak untzirat* (adlatiboan) *bela*. Ahapaldi honetako esaldia gainerako eredu askotan ikusten dugu. Xahoren B ereduan: *aspaldian desir niana jin duk bera eskura*; Donibanekoan: *Aspaldian desir nuena jin zautak orai eskura*,

10

Capitana, capitana, norat jina nais ni hunat
Turna nesasu hartu lekhura ene aita amen phortura
Turna nesasu hartu lekhura ene aita amen phortura

Ahapaldi honetan *kapitana*, *kapitana* aurkitzen dugu. Eredu honetako gainerako ahapaldietan, ostera, *kapitaina*, *kapitaina*.

Neskatilaren erregu hau bat dator ezagutzen ditugun Baxenabarreko bi eruedetan, hau da, Garazikoan eta gure oraingo honetan. Neskatilek aita-amen portura itzultzeko agintzen dio kapitainari. *Phortu* hitza, bestalde, Baxenabarreko eruedetan bakarrik aurkituko dugu.

11

Andere churi charmanta Nun uste duzu zirela?
Badu sei ehun oren lekhura Bidian girela,
impossible [da anderia zure harat] turnasia

Gainerako eredu guztietan itsasoan barrena egindako distantzia legoatan adierazi ohi da. Gure ahapaldian *sei ehun oren lekhura esaten* denez, denbora ere adierazten da. Are gehiago, *Badu seiehun oren* egiturako *badu* horrek denborarekin –hots, *oren* hitzarekin– egiten du lotura.

Gure ahapaldi hau osatu gabea denez gero, beronen eredurik hurbilena erabili dugu, Garaziko eredukoa.

12

Capitaina, capitaina Badusuiea ganibetik?
Ez es dut ganibetik bainan Pugnala chorroch berria
[Ez es dut ganibetik bainan Pugnala chorroch berria]

Kapitainak andereari biluzteko eskatzen dio. Andereak ganibeta eskatu baino lehen zaia –hots, gona– estua duela esan ohi du. Zaia estua duela dionean, zaia egin duen dendariaren eskua madarika-

tu ohi du (ereduak Xahoren biak, Altzaikoa, Gotainekoa, Garazikoa). Kapitainak ganibetik ez duenez gero, ezpata eskaini ohi dio.

Kapitaina, kapitaina baduzuiea ganibetik? Galderan –(ie)a galdetzailea adizkiari erantsia dugu. Gure ahapaldi honetan ezpatarik ez dio eskaintzen, puñala baizik. *Pugnala* hitza dator –a organikoarekin, itxurak direnez– ahapaldi honetan, hurrengoan, ostera, *pugnala*. Delako *Puñala xorrotx berria* horrek, gure ustez, puñal zorroztu berria adierazten du.

13

Andere churi charmantak Harsen du pugnala eskura
[hartsen du pugnala eskura eta] Tirazen dako lephora
[Tirazen dako lephora eta] Erori zen hil gogorra.

Gure ahapaldi hau ere poetak hirugarren pertsonan adierazia da. Andereak ezpata edo puñala hartu ondoren bere bihotzean sartu ohi du, aldaera gehietan ikusten denez. Gure ahapaldi honetan ere berdin gertatzen ote da? Lehen ikusi batean badirudi andereak kapitaina hiltzen duela. Zergatik? Aldaera guztietan *sartu* aditza erabili ohi da, gurean, ordea, *tiratu* aditza. Gure aldaeran, bestalde, bihotzean sartu beharrean *lephora* tiratzen dio kolpea. Gure esanaren indargarri nagusia *tirazen dako* horretan datza. Badirudi andereak golpea besteri tiratzen diola eta ez bere buruari.

Hil-gogorra erori esapidea *zerraldo erori* esapidearen kidea da. Maurice Harrietek *hil gogorra erori zen* esaldia “il tomba raide mort” itzultzen du. Bernard Larreguyk *Sarthu zion ezpata gorphutzetik eta artiki zuen hil gogorra lurrerat* I, 319.

4. Gure aiherrako eredia gaurko grafia-ortografietan

Puntu honetan Aiherrako eredia gaur eguneko grafia-ortografietan jarriko dugu. Guk testua emen-

datzen edo osatzen dugunean, gure emendioa kor-
txete artean jarriko dugu.

1

Behin ari nintzelarik sala batian brodatzen,
sala batian brodatzen eta bertsu ederren entzuten,
[mariñel bat entzun nuen itsasoan kantatzen.]

2

Broderia phausaturik joan nintzen amarenganat,
heian utziren ninduezez gaineko ganberalat,
[gaineko ganberalat eta,] bertsu ederren entzuterat.

3

–Bai, ene al[h]aba, bai, [h]abil gaineko ganberalat
et[a] errokon jin dadiela gurekin afaiterat,
gurekin afaiterat eta hiri kobla erakusterat.

4

–Kapitaina, kapitaina, zato gure etxerat berehala,
gurekin afariterat eta niri kobla erakhusterat,
gurekin afariterat eta niri kobla erakhusterat.

5

–Andere xuri xarmanta, ene jitia imposible da,
ura dugu alde eta untzia partitu beharra,
ura dugu alde eta untzia partitu beharra.

6

–Andere xuri xarmanta, sar zite untzi huntara,
andere xuri xarmanta, sar zite untzi huntara,
emanen dautzut kopia eta erakutsiren airia.

7

Andere xuri xarmanta, sartzen da untzi hartarat,
andere xuri xarmanta sartzen da untzi hartarat,
emaiten dako lo-belharra, lohartu zen berehala.

8

–Kapitaina, kapitaina, nun duzu kontsientzia?
Andere xuri xarmanta horren hola tratazia
[Kapitaina, kapitaina,] nun duzu kontsientzia?

9

–Mariñela, mariñela, emak untzirat bela!
Aspaldian desira nuena orain jin zatak bera,
[orain jin zatak bera eta,] emak untzirat bela.

10

–Kapitana, kapitana, norat jina naiz ni hunat?
Turna nezazu hartu lekhura, ene aita-amen phortura!
Turna nezazu hartu lekhura, ene aita-amen phortura!

11

–Andere xuri xarmanta, nun uste duzu zirela?
badu seiehun oren lekhura bidian girela,
inposible [da anderia zure harat] turnatzia.

12

–Kapitaina, kapitaina, baduzuiea ganibetik?
Ez, ez dut ganibetik bainan puñala xorrox berria,
[ez, ez dut ganibetik bainan puñala xorrox berria]

13

–Andere xuri xarmantak hartzen du puñela eskura,
[hartzen du puñela eskura eta] tiratzen dako lephora,
[tiratzen dako lephora eta,] erori zen hil-gogorra.

5. Azken ondorio bezala

Gure lan honetan *Neska ontziratua* gaiaren Aiherrako eredu ezezagun bat finkatu nahi izan dugu. Balada eredu bakoitzak hainbat alderdi berri eskaini ohi ditu hizkuntza zein argudioaren aldetik. Garaziko eredu ahapaldi eta aberastasan gehiagokoa zen. Aiherrako eredu hau ere eredu aberatsa dela deritzagu. Hamahiru ahapaldiko eredu aberats hau finkatzea izan da gure lan honen helburu nagusia.

1^o couplet
Behin ari ninzelerik sala batian brodazen
Sala bathuan Brodazen eta berri ederen enzuten

2^o couplet
Broderia phausaturik
Jainuzen amaren ganat ibil
Huan uzirai munduones ginchho gambas alai
Berria ederen enzuterat

3^o couplet
Baren alaba, bai habel
Jaincho gamberalal et quotion jin da di eta
Jurekin afaterat, gurekin afaterat eta
Hiri hobla erakusterat

4^o couplet
Capitaina, capitaina, zats gure et dierat berehala
Jurekin afaterat eta
Hiri hobla erakusterat (bis)

5^o couplet
Andere churi charmanta
Gure jitia inpassible da
Hira dugu alde eta
Kensia phantitu beharra (bis)

6^o couplet
Andere churi charmanta
Lazite untzi huntara / bis
Emanen dauzue kopia eta
Erakusien aisia

7^o couplet
Andere churi charmanta
Lazte da untze hastarat / bis
Emanen dake le beharra
Lokharthuz zen berehala

^{7 eme}
Capitaina capitaina
Nun duze Kansiensia?
Ardere churi charmanta
Kosen hola tratatia nun duze Kansiensia?

^{9 eme}
Mauricela mauricela
Emati unizat bela
aspaldian desira muna
Chai jin zatati bora, emati unizat bela.

^{10 eme}
Capitaina capitaina
Apat jina mais ni hunat
Euna nesaru hartu lathura
Ene aita amon phortura i bio?

^{11 eme}
Ardere churi charmanta
Nun ueste duze zurela
Badu sei shum oren lathura
Bidian quela, impossible turm asia

^{12 eme}
Capitaina, capitaina
Padunica ganiletiti
Ez es dut ganiletiti bainan
Pugnala diomoch beria

^{13 eme}
Ardere churi charmantak
Karsen du pugneta estura
Eisagen dafio lathura eta
Erorizen hil gogorra.

Habiak eta Hegoak



ZIKOINARENA

Goian jarri da, aurten ere,
eraikinik kalakarienean,
itzuleraren aldarri,
denboraren geruzari eraztun berria ehundu
bitartean.

Goian jarri da, zutik, dotore,
hiritarrekin paktu isilean,
txori galduei GPS-a luzatuz
eta hegazkin bihurriei pa.

Goian jarri da,
iazkoari bidekoa erantsiz,
koltxoi-adaxkak astinduz
agenda gaurkotu nahian.

Goian jarri da,
baina, ez esan inori,
gauetan hirira jaisten baita,
mokoan izara bat zintzilik
eta izaran opari biluzia dar-dar.

Goian jarri da, aurten ere,
eta erabat poztu da beheko Maria:
Hegoak ekarri baitio
Iparrak ukaturiko haurra.

ABIAN

Amore igarokorrak eta hegaldi zabalak ditu
gustuko argi-oilarrak.

Tarteka, tximeletekin amets egiten du
arin-arina dela,
lore bat airean.

Amore bidaiariak eta berezko aterpeak
maite ditu argi-oilarrak;
urretxoriekin putzuetara dzanga egin,
burua astindu,
bazterrak ziprztindu, fri-fra!

Berak ez daki, oraindik,
baina koralezko alga bi ekarri dizkio, urrutitik,
kalatxoriak.

Bata luzea eta kiribildua,
txori udatiarrekin tira-biran aritzeko.

Bestea motza eta zorrotza,
aldi berriei moldatzera jolasteko
joan ala gelditu erabaki artean.

Baina ez.

Amore pasakorrak eta bidezko gordelekuak
nahi ditu, oraindik, argi-oilarrak;
tximeleta ameslariak,
putzuetako urretxoriak,
hegabera berantiarrak
eta ur lasterra.

Habia beranduago etorriko da,
zelaietako zorabioak
eta gero.

Oraindik ez.



SUTEA

Isiltasunak txistu hotsean alde egin du basotik txinparten konpasean.

Okilak txalaparta hotsez deitu ditu ahaide eta kideak:

–Toko-toko-toko-tok, inor ez dadila hormatu kearen hondarretan!

Zozoa haserre iratzarri da:

–Nork itzali ditu ihintz-tantak suminaren erreinuan?

Gainezka egin du ezinak eguerdi gordinenean.

Muinoaren itzuleran garra, gandor goriz, laukoan, zelai agorrean.

Buztangorri bi eta kardantxiloa, txondor eta ikatz, bidezidor iharretan.

Txantxangorri-hegoak ke dira, jada, grisaren basamortuan.

Murmurio bat aditu da arranguraren herbeheretan.

Mantangorri bat jalgi da minduraren giharretan.

Oihu bat aditu da kuku-praken barrenetan.

Hatsa zimurtu da mirotzaren alarauetan:

–Nora goaz?



ALBISTEA

Habia kendu didate
arrautzak ostu,
lastoak hustu,
hostoak biluztu,
ezpalak kamustu,
ez dakit nola.

Habia eraman didate
ez da mendebala izan,
euriak ez du zerikusirik eduki
ez egotzi errurik erauntsiari,
gorde dezatela euren iritzia aditu guztiek
nahikoa da!

Habia erauzi didate,
sustrai, horma eta sabai, dena,
odol arrastoa dago basoan
putreen gosari,
arranoen otordu,
inurrien bidexka.

Habia idoki didate
aske da, orain, adarra,
hegabera gazte baten gose,
udaberri berde baten zain.

Habia deuseztatu didate.
Nor izan da?



UDAGOIEN

Maletak egin ditu enara arruntak iraila amaieran.
Zubipeko txuloa utzi, eta azkar hegaldatu da,
ohi duen bezala,
segail, fin eta delikatu,
kume, kide, neba-arreba eta auzokoen atzetik hego alde epelerantz.

Artean, jabetu ez arren,
gorantz begira utzi du, ordea,
beheko erreka txokoan aspaldidanik bizi den lamia bat.

Lamiak
urpeko kristal ostetik jarraitu ditu enararen gorabehera eta atzera aurrera guztiak;
enarak,
arrunta izanagatik,
inoiz berezizat jo ez dituenak.

Orain, ordea,
ur laster akituaren murmurio ahulduarekin bakarrik geratu denean,
lamia doanari begira geratu da
gaur arte,
ondo-ondoan, eduki duen lagunari esan ez dizkion esanen damu isilean.



HANDIARENA

Txa-txa-txa-txa,
hegan doa mika
errepidetik zabortegira
hondakinen ehizara,
txa-txa-txa-txa!

Bat-batean, di-da:
-Zer da hor dagoena?
Oihartzun txolina
simaur lurrunaz bat egin da.

Txa-txa-txa-txa,
ez da Kubako dantza
baizik bele eta putreei egindako oihu garratza:


-Zatozte, zulatu larrua, ireki hezurra,
lehenbailehen nahi dut horko horren garuna!

Txa-txa-txa-txa,
bira erdi eman eta hor doa
hegaldi ertainean mika,
mokoan garun berria dingilizka.

Zabor tartean, ordea, kristal distira,
ispilua:
-O! A! Nor da ederrena?

Erantzun gor-mutua,
luma banaka;
aztoreak jan ditu mika
eta haren bazka.

Kio-kio, kia-kia,
iraupenaren hika-mika,
kio-kio, kia-kia,
unearen dirdai,
joanaren kilika.



Poemak

AIZKORA

Aizkora hartu nuen arratsaldeko sua egiteko.
Aizkora zorrotza.
Egurra hartu nuen arratsaldeko sua egiteko.
Egur lehorra.

Txikitan etxeko sua pizten nuen nik zurezko xaflak kaskaturik.
Aizkoran trebea.
Aizkoran espezialista ni.

Oinarekin zapaldu nuen adar sikua
eta metala buru gainean altxatu.
Dizdizari, sarkor oso.

Bi metalen kontrajotzea entzun nuen
eta talka-uhinagatik beste golpe bat sentitu ere.

Oinean linea gorria inprimatu zen.
Hamaika zentimetro.

Zirujauak atzamarra sartu zuen barruan
dena bere tokian zegoela kontrolatzeko.
Ni begira. Hamaika puntu.
Nire haragia zabalik, atzamarra barruan.

Aizkoragatik badakit baina, zauririk larrienek
ez dutela haragia zabaltzen.



PERTSONA BAT

Badira pertsonak berba egitean ezpainetan itodura bezalako zerbait jartzen zaienak eta hitz argirik ez diotenak.

Telefonoaren zenbakia markatu eta atoan damutzen direnak.

Berba lehorrekoak, desertuzko ezpainetakoak, betiko esku hotzak dituztenak. Ispiluetako lurrunean izenak idazten dituztenak.

Badira gorbatadun txitxarroak, eta beduino amableak, frakasatu benetan frakasatuak eta ez hain direnak. Balea poliformeak, eta mutazio humanoidedun alakranak, musu pozoitsuak banatzen dituztenak.

Badira inoiz bete ez egiteko promesak esaten dituztenak, zenbaterainoko kaltea sortzen duten asimilatuko ez luketenak.

Gora erortzen, bertikaltasunean trebeak direnak. Munduaren definizioarekin aztoratzen direnak, kikiltzen direnak zozoaren aldrapean, hainbeste bizitzarekin zer egin ez dakitenak.

Badira zainak urratzeko prest daudenak, eta odola ikustean zorabiatzen direnak, beste mundu batera joango liratekeenak.

Badira bai esateko gaitasuna ez dutenak, eta ez etengabe ahoratzen dutenak, ez dakit, baliteke, ez eta ez berbakoak.

Etenbako asfixian, alarman irauten dutenak, besarkadaren inpaktuari esker bizi direnak, zaugarritasuna burua makurtzean adierazten dutenak.

Badira koloreztaturiko begiak iluntzen dakitenak eta etorkizunari itsuak direnak, badira suge hilgarriak eta intsektu korazadunak.

Badira borroka konbateetan aritzeko prest egunero altxatzen direnak, indar flakaturik gero hiltzen direnak, besarkatzeko ia gogorik ez dutenak, esnea ezin irentsiz dabilzanak, atzamarrean zuloa eginda odola xurgatzen dutenak, gero txu egitekoak, eta badaude dena irensten dutenak.

Badira faltsuak, ingratuak, fartsanteak, intentsuak eta mila bider betileak busti egingo dituztenak. Ezin kontrolatuzko tristezia deskargak pairatzen dituztenak. Aleatorioki kloro egunak, betadine egunak eten gabeen dastatzen dituztenak.

Beren koherentziak gosaltzen dituztenak, bareak zapaltzeko kapazak direnak, destorbu ez egiteko isilik daudenak, maite zaitut esateko eskatzen dutenak, ez zaitez joan begiradarekin esaten dizutenak.

Badira esperogaitzak itxaroteko lagungarriak direnak, hustu egiten zaituztenak, badira zure ondoan egotekoak.

Badira abandonatzen zaituztenak.

ABIADURA BI

Etxea handiegi gelditu da,
batzuetan geletan galtzen naiz,
denbora gastatzen dut kontu egin gabeko
gauzak begiratzen.

Ama hil zenetik askotan egiten dut.
Nireak ez diren objektuak hartzen ditut
eta iragana bilatzen diet,
curriculuma ezartzen diot bakoitzari.

Badakit betidanik egon direla,
beti ikusi ditudala,
espazio horretako osagai sinpleak ziren.
Ez diet erreparatu.

Aste betean ez naiz denak arakatzeko gai izan,
eta lantzean behin atsedena hartu behar dut,
nekatzen naizelako edota
bihotza irauli egiten zaidalako bat-batean.

Azkena komunean gertatu zait,
buruko eskuila zahar bat hartu eta
nireak ez ziren ile luzeak
bertan korapilaturik ikusi ditudanean.


Kostatu zait kentzea,
eta eskuan nituela
ez nekien
bota behar nituen,
edo nora.



Charles Baudelaire, lirika modernoaren aita

Baudelairek poeta madarikatuaren eta dandy aristokratikoaren aurpegi biak izan zituen. Bietan gizarte hipokrita eta boterezalearenganako erdeinua erakusten zuen.

Parisen jaio zen 1821ean. Sei urte zituela, aita hil zitzaion, eta ama berriz ezkondu zen militar batekin, Charlesek sekula onartu ez zuen ugazaita gorrotatuarekin. Ikastetxean ikasle argia izan zen, baina diziplina gabea. Parisko unibertsitate garaian bizi-modu bohemioa eta familiarentzat eskandalugarria izan zuen. Aitak utzitako ondarea barra-barra eralgi ostean, egoera estu eta larrian bizi izan zen: osasunik gabe, dirurik gabe, eta egonkortasun psikologikorik gabe. Hala ere, arte kritikoa zorrotza izan zen, eta Edgar Allan Poeren obraren itzulpen bikaina egin zuen. 1857an *Gaizkiaren loreak* poema liburua argitaratu zuen. Liburu hori dela eta, auzira eraman zuten, moralaren kontra egindako laidoengatik. Isuna ordaintzera kondenatu zuten, eta, gainera, sei poema kendu behar izan zituen. Charlesek ez zuen etsi, eta jarraitu zuen liburua poema berriekin osatzen. Geroago, Belgikara joan zen, liburuak argitaratzeko laguntza bila, baina ez zuen lortu,



eta, etsita, Parisera itzuli zen. Ordurako pairatzen zuen sifiliak oinaze larriak sortzen zizkion. Urtebeteko elbarritasuna jasan ostean, 1867an hil zen, Parisen bertan. Azkenean, “bizitzatik, jasan ezin-neko bizitzatik” jare.

Charles Baudelaire XX. mendeko lirika modernoaren aita da. Berarengan batu ziren aurreko joera poetiko nagusiak, eta beragandik sortu ziren etorkizuneko poesiaren bideak (Sinbolismotik Surrealismoraino).

Alde batetik, izaera erromantiko berezkoa zuen (barne urratua, gogo-ilundura, gaitz edo infinitura ihes egin nahia...); baina bestetik, zentzu kritikoa, poemen intentsitate eta betegintzarreak, eta, batez ere, gizakiaren eta hiriaren ikuspegi modernoak gaintu egiten dute erromantizismoaren samurkeria.

Baditu bere poesietan Parnasianismoaren ezaguri formal batzuk: sentsualtasuna, neurri eta erri-men aberastasuna, aipamen mitologikoak... Hala ere, parnasianoen bideetatik urruntzen da barne-mundu konplexuaren erabilera poetikoan.

Eskuarki, sinbolismoaren aitzindaritzat hartzen da Baudelaire, eta mugimenduaren ordezkarien artean kokatzen da. Egia da Korrespondentziak izeneko poeman poesia sinbolistaren klabeak eskaintzen dizkigula: errealitate idealaren eta materialaren arteko harremana. Halaber, egia da sinbolismoan nabarmentzen den musikaltasuna, eta, oro har, zentzumenen mundua azaltzen dela, formak, koloreak, lurrinak harrigarriro elkartuz. Baina Baudelaire Sinbolismoaz haratago doa gaien sakontasunean eta barruko kontraste bortitzetan: Jainkoa eta Satan, ederra eta ezaina, bekatua eta ordaina...

Baudelaireren poemen egiturak eta zehaztasunak klasikoen artean ere jartzen dute, baina haren espiritu alatuaren adierazpenak XX. mendeko poesia iragartzen duen irrazionaltasunez beteta daude.

Gaizkiaren loreak poema-bildumaz gainera, badauka prosa poetikoan idatzitako beste lan aipagarri bat ere: *Petits poèmes en prose* delakoa edo *Le Spleen de Paris* (Jean-Baptiste Orpustanek *Poema xipiak laxoan edo Parisko gogo ilundura* izenburupean euskarara itzulia). Bertan hiriaren errealitate anizkuna azaltzen da: ibiltari bakartia eta jende elia; lorategiak, teilatuak eta teilatupeak; kafe-etxeak, kabaretak...

Duela urtebete Labayru Ikastegiak Lauaxetaren olerki bilduma bat argitaratu zuen, gaurko euskaren arauetara moldaturik. *Ludi honen bestaldez* izena jarri zitzaion. "Ludi honen bestaldez loratzen diran landaren usainak goizalde bakotxak dakarkidaz" da *Arrats beheran* liburuaren sarrerako lehenengo esaldia. Esaldi horretan Lauaxetak sinbolisten eta, batez ere, Charles Baudelaireren poesiaren ikuskera azaltzen digu dotore. Badakigu Lauaxetak Baudelaireren poesia berriaren lilura sentitu zuela, eta hala erakutsi zuen itzulpen batzuetan: Izaia, Odol-iturria, Gorespena.

Guk ere maite dugu Baudelaireren poesia, eta haren ale batzuen itzulpena dakargu.



KORRESPONDENTZIAK

Natura tenplu bat da zeinen habe biziek
irteten uzten dituzten hitz nahasiak;
Gizakia igarotzen da sinboloen basoan zehar
eta haiek behatzen diote senitarte-begiradaz.

Urrunean batzen diren oihartzun nahasien antzera
unitate itzal eta sakon batean
gauaren eta argitasun zabalaren antzera
urinak, koloreak eta soinuak elkari egokitzen zaizkio

Umeen haragia bezalako urrin freskoak daude,
oboeak bezain gozoak, larreak bezain berdeak
eta beste batzuk ustelduak, garaileak, aseak,

atxiki ezineko gauzen zalantzazko soslaiarekin,
nola baitira musketa, anbara, intsentsua eta benjuia,
zeinek arimaren eta zentzumenen joan-etorriak kantatzen bai-
tituzte.

GORATZEA

Urmaelen gainetik, haranen gainetik,
mendien, basoen, lainoen, itsasoen gainetik
eguzkiaz haratago, eterraz haratago,
esfera izartsuen mugaldez haratago,

ene espiritu hori, bizkor mugitzen zara,
eta, olatuekin hunkitzen den igerilari onaren gisan,
mugagabetasun sakona pozez zeharkatzen duzu
arraren guritasun esanezinaz.

Egizu hegaz keru gaizkor hauetatik urrun,
zoaz goieneko airean garbitzera,
eta edan, likore garbi eta jainkozkoa bailitzan,
une aratzak betetzen dituen su argia.

Oinaze handien eta gogaitasunen atzean,
zeinek beren pisuarekin izate lanbrotsua dorpetzen baitute,

zorionsua da hegazkada kementsuan
zelai argi eta baketsuen gainera gora daitekeena;

hura, zeinen gogoa, hegatxabala bezala,
goizeko zerurantz igotzen baita hegaldi librean,
hura, zein bizitzaren gainean altxatzen baita eta ahalegin barik
ulertzen baitu loreen eta gauza mutuen hizkuntza!


GIZONA ETA ITSASOA

Gizon aske horrek: beti maiteko duzu itsasoa.
Itsasoa zure ispilua da, zure arima.
Behatzen duzu haren olatuaren garapen mugagabea,
zure espiritua itsas leizea bezain mingotsa da.

Laket duzu zure irudiaren golkoan murgiltzea;
begiekin eta besoekin besarkatzen duzu, eta zure bihotza
batzuetan bere zurrumurruez adigabetzen da
kexu hezigaitz eta basati horren hotsaz.

Biok zarete ilunbetsu eta zuhurrak:
gizona, inork ez du aztertu zure leizeen sakona;
oi itsasoa!, inork ez du zure ezkutuko ondasunik ezagutzen,
hain artatsu zaudete-eta zuen sekretuak gordetzeko!

Hala ere, duela ezin konta ahala mende
auskan zabiltzate, gupida eta arrangurarik gabe,
hain gogoko baituzue sarraskia eta heriotza
oi betiereko borrokalariak, oi bihozgabeko senideak!



HILONDOKO AUSIKIA

Lo dagizunean, ene eder ilunbetsua,
haitzurdin beltzezko hilobi baten hondoan,
eta etzaleku eta bizileku huts
panteoi euritsu eta hobi zulatu bat duzunean;

harriak, zapaldurik zure bular beldurbera eta
sortasun xarmant batek leuntzen dizkizun saihetsak,
zure bihotzari taupatzea eta maitatzea galarazten dionean
eta zure oinei beren menturazko lasterketan abiatzea,

hilobiak, ene amets-irudi infinituaren isilmandatariak
(hilobiak beti ulertuko baitu poeta),
ametsa debekatuta dagoen gau luze horietan

esango dizu: zertarako egin diozu, gortesau akastun horrek,
hilen negarrari entzungor?
Eta harrak ausiki baten gisa zure azala marraskatuko du.

KATUA

Erdu, ene katu maitea, bihotz amorostu honetara;
atxiki itzazu zango horietako erpeok,
eta utzidazu barneratzen zure begi ederretan,
zeinak metal eta agataz nahasturik dauden.

Nire atzek zure burua eta bizkar malgua
gozamenez ferekatzen dituztelarik,
eta nire eskuak zure gorputz elektrikoa
laztanduz plazerez mozkortzen direlarik,

ene dama ikusten dut gogoan. Haren begirada,
zurea lako da, animalia maitea,
sakon eta hotza, gezi batek legez ebaki eta urratzen duena,

eta, burutik hanketaraino,
haize fin batek, urrin arriskutsu batek,
zure gorputz nabarraren inguruan uger egiten du.



DEABRUAK HARTUA

Eguzkia doluz estali zen. Hura legez,
oi ene Ilargi nirea!, itzalekin estal zaitez;
zaude lo edo su har nahierara; zaude ilun, zaude ixil,
eta Tristuraren osinean amil zaitez eta murgil;

horrela zaitut maite! Hala ere, gaur baduzu gogo,
argi-itzaletik sortu izar ostendua lako,
Eromena gailentzen den tokietan ibili harro,
sastakai xarmanta, irten estalkitik! Ondo dago!

Piztu begi-ninia zutargien garretan!
Piztu gutizia gaizkileen begietan!
Zuregan dena laket dut, gaizkor edo suhar;

zarela nahi duzuna, gau ilun, goiz nabar;
ene gorputz dardartian ez dago giharrik
Oi, Beltzebu maitea, adoratzan zaitut! oihu ez dagienik.

MUSA ERIA

Ene Musa gaixoa, ene! Zer dun gaur goizean?
Hire begi eroriak gaueko ikuskariz beteak zauden
Eta hire azalean islaturik ikusten ditinat txandaka,
Hotzik eta goibelik, eromena eta izua.

Etsai berdatsak eta inguma arrosak
Euren ontzietako beldurra -eta amodioa- isuri dinate?
Amesgaiztoak, ukabilkada bihurri eta despotiko batez,
Minturno ikaragarri baten barrenean ito al hau?

Nahiko niken, osasun usaina zabaldurik,
hire asmo tinkoko bularra beti bilgune izatea
eta hire odol kristaua olatuen taupadaz isurtzea

antzinako silaben soinu aniztunen antzera,
non nagusi diren aldizka Febo, kantuen aita,
eta aldizka Ogi handia, uzten ugazaba.

URRIN EXOTIKOA

Udazken arratsalde epel batean, bi begiak itxita,
zure bular beroaren usaina arnasten dudanean,
eguneroko eguzkiaren distirak itsutzen dituzten
ibar zoriontsuak hedatzen ikusten ditut;

uharte nagi bat, non naturak zuhaitz bitxiak
eta fruitu gozoak eskaintzen dituen;
gorputz argala eta indartsua duten gizonak,
eta begien zintzotasunaz txunditzen duten emakumeak.

Zure usainak klima xarmagarrietarantz gidaturik,
anitz masta eta bela, artean olatu itsastarrak unaraziak,
dituen portu bat ikusten dut,


eta bitartean, tamarindo berdearen urrina,
airean barreiatu eta sudurra gainezkaturik,
ene ariman nahasten da marinelen kantuarekin.

Betirako

Gaur zure eguna da
horregatik natorkizu hizketan,
zuretzat.
Etorkizunera begira,
lehenalditik nator.
zuk opariak jasotzeko
egina dagoen gaurko egunean
nik eskertu nahi dizut
hamarkada bateko
ardo ondu kutsuaz,
behin egin zenidan erregalia.

Zu izan zinen maitasun hitzari
esanahi berri bat
eman zion pertsona,
Kutxi kaleko
Zazpi tabernaren aurrean
dagoen atarian.
Doctor Deseo
“tangoan” nire memorian.

Gasteizko Otsaila hotz hartako astakeria
ahaztu badut ere,
zuga pentsatzean
nire jokaerak lotsatzen nau.
Hotz jarraitu zuen udaberriarekin
gogoratzen da nire bihotza.



Ez. Ez da bihotza.
Burmuiari soilik dagokio
eletrizitate-kimika dantza
antzezteko gaitasuna.
Bihotzetik gora bizi dira
erbesteko hizkuntza zaharrak.

Egun miragarri haiengatik
eskerrik asko.
Utzi zenuen aztarnagatik
eta erakutsi zenidan
bizitzeko eragatik
eta irribarreagatik
eta begi distiratsuengatik ere.

Lehenaldiko hautsez betetako
kapitulo hau
kutxa batean gordeko dut.
Baina berrerosterik ez.

Magikoa bihurtu zinen
nire oroitzapenetan,
Craig Armstrongek konposatutako
sinfonien moduko izaki etereoa.

Zure izaerarekin egun arruntak
eder bihurtu

dizkiezun guztien izenean,
eskerrik asko.

Niretzat zein esanguratsua
izan zinen
inoiz aitortu ez dut.

Ea laster elkarrekin
kopak altza ditzakegun.

Benetan, burmuin-burmuinez...
zorianak!!!!



